



International Relations Candidatura d'Unitat Popular (CUP)

Lagun maiteak

Katalan herriaren Autodeterminazio Eskubidearen aurkako epaiketak izan baino egun batzuk lehenago, Polizia espainiarrak ezker independentista mugimenduko hainbat kide atxilotu ditu, alkateak barne.

Urtarrilaren 16ko goizaldean Polizia espainiarraren Ikerketa Brigadak Girona inguruko CUPeko bi alkate ezagun atxilotu zituen, Ignasi Sabater, Vergeseko alkatea eta Dani Cornellá, Ceirákoa. Guztira 11 lagun dira jadanik atxilotuak.

Operazio hori inolako agindu judizialik gabe egin da, nahiz eta Polizia espainiarrak kontrakoa esan duen. Kataluniako Justizia Epaitegi Gorenak esan duenez, ez dago inolako atxiloteta agindurik eta operazio hori Polizia espainiarraren ekimena izan da. Beraz, operazio hori atxilotutakoei aurretik inolako abisu edo deirik egin gabe gertatu da.

Abokatuek ezin izan dute atxilotuak ikustera sartu. Komisaldegian agertu eta katalanez aritu direnean, gazteleraz egin bitartean ezingo direla sartu esan diete. Azkenean atxilotetak gertatu eta hiru ordura sartu ahal izan ziren.

Atxilotetak egiten ari den Polizia espainiarraren Ikerkuntza Brigadako kideetako bat Jordi Borrás fotokazetaria kolpatu zuena da. Borrásen zeregin nagusietako bat eskuin muturraren jarduna salatzea izan ohi da.

Gertaera berri hau Estatu espainiarrak askatasunaren aurka duen jarrera errepresiboaren barne kokatzen da. Eskura dituen tresna guztiak erabiltzen ari da proiektu independentista kriminalizatu eta zigortzeko. Autodeterminazio eskubidea bezalako eskubide kolektiboaren urraketak, pertsona bakanen eskubide zibil eta politikoen etengabeko zampaketa dakar. Egoera hau erabat onartezina da.

Epaiketan inolako berme demokratikorik ez dagoen bitartean, autodeterminazio eskubidearen aurkako edozein prozesu judizial inpugnatu eta salatu beharra dago. Horixe izango da CUPen eta ezker independentistaren lehentasun politikoetako bat.

Testuinguru honetan, Estatua salatu beharra dugu bere autoritarismo eta demofobiagatik. Estatu espainiarra da epaitu behar duguna. Estatu espainiarra eta bere erakundeak dira gatazkari irtenbide demokratikoa oztopatzen ari direnak.

Erakunde politiko, sozial eta sindikalekin batera mobilizazio deiak egingo ditugu. Beraz edozein elkartasun agerraldi egitera deitzen dugu, eskubide urraketa horrek guztioi eragiten baitigu.

Gertaera hauen berri ematen jarraituko dugu. Bitartean, zuen aginduetara gaituzue.



**International Relations
CUP Exterior
Candidatura d'Unitat Popular (CUP)**